

HERRI BATEN ALDARRIKAPENA



GUERNICA
GERNIKARA

azken bidaiia

MEMORIA ETA LEKUAK

Memoriak baditu bere lekuak. Ondare heterogeneoa osatzen duten lekuak dira, izan ere: aztarnak, hobiak, mugarriak, eraikinak, hormak, ibilbideak, interpretazio-guneak... Hala ere, nahiz eta oso ezberdinak izan, ezaugarri komuna dute giza eskubideen aurkako bortxaketaren lekuko izan zirelako, hain zuzen ere. Lekuok, beraz, memoria ehuntzen dute inpunitateari eta ahanzturari aurre egiteko. Nabarmendu egiten diren espazioak dira, kontakizun berria, kolektiboa eta partekatua eraikitzeko. Gernika adibide bat da.



ARTEA ETA MEMORIA

René Huyghe: *“Arteak, sismografo oso sentikor baten antzera, desioak eta beldurrak erregistratzen ditu; bizitza eta mundua ulertzeko modua, emozio ezagunak eta fede, arraza, kultura bereko gizon-emakumeek duten hunkitzeko modua...”*

Artelana, beraz, errealitate kolektiboaren adierazpena da. Gure kasuan Guernica koadroa lekuko bat da gizartea seinalatu eta interpelatzen duena etorkizun justuago baten aldeko aldarria eginez.



GUERNICA GERNIKARA

40 urte joan dira gure koadroa ozeanoaren beste aldetik ekarri zutenetik. Gure koadroa diot, gure herriaren mina erraietatik islatzen duelako, eta Picassok gure mina bere egin zuen bezalaxe, gernikarrok ere sarraskiaren eta bidegabekeriaren isla den koadroa gure egiten dugulako. Picassoren nahia zen Gerra Zibila eta diktadura atzean utzitakoan, koadroa Espainiara lekualdatzea, ordurako babestuta egongo zelakoan. Babestuta badago, baina bahituta ere bai. Koadroak atzean duen historiak, munduan barrena gizadiaren maltzurkeria bidegabea salatzen erabili izan denak, guztion kontzientzian burrunba izugarria egin beharko luke berez.



Hala ere, hantxe dago, Reina Sofia Museoko gela handi eta hotz batean, isil-isilik, urrutitik datozkion bisitariei mezua ondo helarazi ezinik. Bertatik igarotako begien artetik, zenbatek ikusi eta ulertuko ote zuten koadroak atzean duena? Zenbatek ulertuko ote zuten Picassok koadroa margotzerako orduan salatu nahi zuena?



Gernikarren ekintza Casón del Buen Retiron. 1981.

**ERAKUSKETA
ARKUPEAN**
Irailak 18-30